# 01 EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK ETXEAN

**Etxeko garbiketan erabiltzen diren produktuak ezkaratzeko armairuan daude gordeta. Armairua erraz irekitzeko moduan dago eta umeak, berauekin jolasten ari dira.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Etxean erabiltzen diren garbiketarako produktuak haurrak heldu ezineko tokietan gorde behar dira. | | |
| B | Batera gorde behar dira janariak, produktu toxiko eta antzekoekin. | | |
| C | Produktu kimiko arriskutsuak jatorriko ontzietan mantendu behar dira. Ez jarri inoiz aipaturiko produktuak elikagaiekin erabiltzen diren ontzietan. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# 02 EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK ETXEAN

**Bainuaren bidez garbiketa ona ez ezik, atsegin handienetako bat ere ematen zaie haurrei. Kasu honetan, haurrak bainugelan bakarrik ari dira.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Ez utzi inoiz haurrak bakarrik bainuontzian. | | |
| B | Bainuko termometroa erabili uraren tenperatura egokia dela bermatzeko. | | |
| C | Haur txikien kasuan, ez bete inoiz bainuontzia 40 zentimetro baino gutxiago. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uste?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# 03 EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK ETXEAN

**Ezelako arazorik gabe, bi haurrak balkoira ateratzeko aukera izan dute. Bertan, hainbat lore-ontzi daude eta haurrak, nola ez, bertara igotzen dira.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Ikara kentzeko asmoz, txiki-txikitatik erakutsi behar zaie haurrei esku-eskailerak erabiltzen, altzarietara igotzen edota mahai zein ohe gainean bakarrik jolasten. | | |
| B | Ez utzi inoiz leihoen aurre edota balkoi barrenetan lore-ontzi, kaxa edo bertara igotzeko aukera ematen duten antzeko objektu edo gailurik. | | |
| C | Balkoi eta leihoek kisketak edo antzeko blokeo-sistemak izan behar dituzte, beti ere, haurren eskura ez daudela bermatuz. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# 04 EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK ETXEAN

**Neskatxoa bakarrik utzi dute sukaldean eta kuriositateak gehiago eginda, aulkia hurbildu, bertara igo eta sua piztea bururatu zaio. Halako batean, erredura izan du hatzamarrean.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Jokabide egokia da, haurrei, txiki-txikitatik, sukaldatzen erakustea eta bakarrik ahalegintzen uztea ere. | | |
| B | Jatekoa prestatzen ari dela, haurrak sukaldetik kanpo mantentzen ahalegindu behar da. | | |
| C | Blokeatze-sistemak ezartzea komeni da labe, mikrouhin-labe eta antzeko sukaldeko ekipoetan. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# 05 EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK ETXEAN

**Artaziak eskuragarri zituztenez, beraien logelara joan eta egunkariak ebakitzen hasi dira. Denbora gutxira, ebakia izan du beraietariko batek.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Haurrak heldu ezin diren tokietan gorde behar dira objektu zorrotz eta ziztatzaileak. | | |
| B | Txiki-txikitatik erakutsi behar zaie haurrei kontserba-latak irekitzen, sukaldeko tresnak erabiltzen, eta abar. | | |
| C | Erretiratu berehala, erabat edo partzialki apurtuta dauden jolasak. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK KALEAN

**Behar bezala zaindu gabeko jolas gunean daude bi haur hauek, eta gerta zitekeena gertatu da: zabuaren goiko euskarrietako bat eten eta haurra erori da.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Behar bezala homologatutako jolasak jarri soilik. | | |
| B | Mantentze plangintza egokia ezarri eta osotasunean betetzen dela bermatu. | | |
| C | Haurrei beren kabuz jolas guztiak probatzen utzi, ezelako aholkurik eman gabe. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uste?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK KALEAN

**Haur talde bat korrika doa espaloian zehar. Lehenengo doanak topo egin du pibotarekin, eta erori egin da.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Espaloietan pibotak jartzea debekatu. | | |
| B | Espaloietan korrika ez dela egin behar aholkatu behar zaie haurrei txiki-txikitatik. | | |
| C | Espaloietan pibotak jartzekotan, ertz arriskutsurik ez dutela eta zoruaren kolorearengandik desberdintzen direla bermatu behar da. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK KALEAN

**Sarri entzuten da ibilgailu batek oinezkoa harrapatu duela. Gehienetan, jarrera desegokien ondorioz izaten da. Hona hemen, ohikoenak: semaforoa gorriz dagoela kalea gurutzatzea, behar ez den lekutik gurutzatzea, sakelakoa erabiltzen ari direla gurutzatzea eta abar.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Zebrabideak eta semaforoak errespetatzea helburutzat duten ekimenak bultzatzea. | | |
| B | Oinezkoentzako semaforoa berde ipinitakoan, ez abiatu galtzadara; begiratu ezker-eskuinera eta egon zaitez segundo batzuk zeharkatzen hasi aurretik. | | |
| C | Ez zeharkatu kalea inoiz bide laburrenetik, hau da, diagonalean zuzen-zuzen ibili gabe. Zenbat eta metro gutxiago egin, orduan eta arrisku handiagoa edukiko duzu. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK KALEAN

**Txakurrak edukitzea ohikoa da, baina animalia horiek edukitzeak hainbat eginbide ere badakartza, tartean, kaka egiten dutenean, biltzea. Txakurrak dituzten pertsona askok, ordea, muzin egiten diete betebehar horiei. Kasu honetan, nagusiaren arduragabekeriaz, haur batek labain egin, eta erori egin da.**

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Txakurrak egindako kaka kalean uztea debekatuta dago, eta txakurra daramanak dauka jasotzeko ardura. | | |
| B | Kale erdian batu gabe geratzen diren txakurren kakak gutxienez urtean behin jasotzea komeni da. | | |
| C | Txakurrak egindako kaka plastikozko poltsan sartu, poltsa itxi eta zakarrontzietara edo estolderia-sareko hustubideetara bota behar da. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK KALEAN

**Lasterketa balitz bezala doaz bi haur hauek, bizikleta eta patinekin espaloian zehar, eta oinezkoak arriskuan jarri dituzte.**

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Bidegorri sare egokiak eraikitzea bultzatu behar da. | | |
| B | Nahiz eta haur txikiak izan, erabat debekatuta dago bizikleta zein patinekin espaloietatik igarotzea. | | |
| C | Haurtxoak espaloietatik ibil daitezke bizikletaz, adin nagusiko baten ardurapean, oinezkoen abiadura berean ibiltzekotan eta oinezkoei eragozpenik ez sortzekotan. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uste?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK MENDIAN

**Aitari eta amari aurrea hartzeko asmoz, anai-arrebak korrika hasi dira maldan behera. Neskatxoak, estropezu egin du; eta, ondorioz, erori egin da.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Lasai ibili behar da mendian, are gehiago, jaitsieran. | | |
| B | Ahalik eta bizkorren ibili behar da mendian, are gehiago, jaitsieran. | | |
| C | Oinetako eroso eta iraunkorrekin joan behar da mendira. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uste?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK MENDIAN

**Jantzi egokirik gabe joan da familia osoa mendira. Euri zaparradak harrapatu ditu, eta hor daude, noiz atertuko, zuhaitz azpian.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Jantziei dagokienez, nora eta noiz zoazen hartu behar da aintzat. Baina euritakorik ez da ahaztu behar sekula. | | |
| B | Oso zaila da tximistak jotzea, baina ez ezinezkoa. Ez babestu harkaitz baten edo zuhaitz baten azpian, batez ere bakartuta daudenean. | | |
| C | Mendira joan aurretik ez dago zertan jakin zer eguraldi egingo duen. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# 13 EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



## ARRISKUAK MENDIAN

**Gurasoek ez dute arreta mantendu, eta hor daude haurtxo biak, negarrez, galduta. Bitartean, gurasoak, erabat ikaratuta, oihuka dabiltza.**

---

**Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak**

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Behe lainoa oso txikia bada eta erabat galduta egonez gero, bilatu babesa eta itxaron. | | |
| B | Ondo dago txikitatik antzeko egoera hauek bizitzea, horrela, arinago helduko dira. | | |
| C | Haurrei ez zaie inoiz nagusiengandik aldentzen utzi behar. | | |

**Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!**

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK MENDIAN

Haurtxo hauek oso pozik daude, estreinako etxetik kanpo igaroko baitute gaua, lagun artean. Baina ez daude, ez, behar bezala zainduta, suarekin jolasten ari dira-eta kanpin-dendaren aurrean.

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Haize bortitzik ez badago, utzi ahal zaie haurrei suarekin jolasten, sutea sortzeko arriskurik ez baitago. | | |
| B | Inola ere ez zaie utzi behar haurrei suarekin ibiltzen, ez kanpinetan, ez mendian. | | |
| C | Suteengandik babesteko sistema egokiak ezarri behar dira, kanpinaren instalazioak eta edukia aintzat hartuta. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK MENDIAN

**Harresien atzean artaldea dago, bat nora mugitu, besteek atzetik jarraitu. Haurrak barrura sartzeko asmotan dabiltza, ardiak hurbilagotik ikusi nahian. Halako batean, euretako batek alanbrearekin ebakia egin du.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Mendian ezin dira harresiak jarri, beraz, barrura sartzeko eskubidea dute nahi duten guztiek. | | |
| B | Haurrei txikitatik erakutsi behar zaie alanbre-hesietara ez igotzen, alanbrearen arantzekin ebakitzeko arriskua baitago. | | |
| C | Mendi zein baserri inguruetako harresiak behar bezala seinaleztatuta egon behar dira, eta eragin ditzaketen arriskuak azpimarratuta. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK HONDARTZAN

Ezustekoa izan du haur batek. Kasu honetan, zorionez, sorosleek uretatik atera dute. Susto ederra baino ez da izan, baina hurrengoan…

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Uretan zein uretatik kanpo zaudela, egiezu kasu sorosle eta hondartzainen jarraibideei. | | |
| B | Uretara lasai joatea baino, korrika egin eta zuzenean jauzi egitea komeni da. | | |
| C | Itsasoaren edertasuna arriskutsu bihurtu daiteke, korronteak baititu. Hondartzara iritsitakoan, arreta-neurriak hartzea komeni da, lehenik eta behin bandera zein kolorekoa den begiratuz. | | |

**Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uste?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!**

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK HONDARTZAN

**Ze gustura dabiltza aita eta seme-alabak hondarrezko gaztelu eder bat egiten. Halako batean, semeak, ohartu gabe, pala bete hondar bota dio inguruan begira zegoen beste haur bati, begietara.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Hondarrezko gazteluak egitea debekatu beharko litzateke. | | |
| B | Haurrekin hondarrezko gazteluak egitean, nagusiak adi egon behar dira. | | |
| C | Hondarrezko gazteluak egiteko erabiltzen diren tresnak nola erabili era seguruan erakutsi behar zaie haurrei. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uste?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK HONDARTZAN

**Eguzkiak biziki jotzen duen unean daude gurasoak zein haurtxoak, ezelako babesik gabe. Sorbalda erretzen hasi zaio jadanik mutikoari.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | 3tik 6 hilabetera arteko haurtxoak egunero 3 edo 4 ordu eguzkitan egotea komeni da. Horrela, lehenago ohituko dira. | | |
| B | 12:00etatik 17:00etara zuzeneko eguzkitan jartzea ekiditea komeni da. | | |
| C | Izan gogoan: eguzkiak erredura larriak eragin ditzake. Beraz, ez egon denbora askoan eguzkitan, eta babes ezazu egokiro azala. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uste?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK HONDARTZAN

**Bi gazte palekin jolasten ari dira, inguruan dauden haurtxoengan eragin dezaketen arriskua aintzat hartu gabe.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | 10:00etatik 18:00etara, hondartza eremu osoan jolastu daiteke, pilotan zein futbolean. | | |
| B | Hondartzan palan edota antzeko kirolen bat egitean, zorrotz errespetatu behar dira horretarako gordetako guneak. | | |
| C | Palan jolastean, haurrak edota pertsona nagusiak inguratzen badira, utzi jolasteari ingurutik urrundu arte. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK HONDARTZAN

**Aitak lepora igo du alabatxoa, jauzi egiten erakusteko asmoz. Haurrak oreka galdu du, eta, ondorioz, atzerantz erortzear dago.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Haurra uretan dabilenean, beti begi bistan eduki behar da. Nagusien ardura da haurrak zaintzea, ez sorosleena. | | |
| B | Haurrek ezeren beldurrik gabe jauzi egiten badute uretara, zer arrisku aurki ditzaketen azaltzea komeni da. | | |
| C | Sorosleak dauden hondartzetan, lasai ibil daiteke edozein motako jolas edo jauziak egiten, arriskuetatik salbu baitaude guztiak. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uste?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK IKASTETXEAN

**Gelara heldu eta irakaslea falta denez, leihoa ireki dute zain zeuden haurrek, kanpoan zer gertatzen den ikusteko. Ederra sustoa hartu du irakasleak, haurrak aulkietan igota gorputz erdia leihotik kanpora dutela ikusi dituenean.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Haur txikiak inoiz ere ez dira bakarrik utzi behar gelan. | | |
| B | Haurrak dauden geletan leihoak jartzea debekatuta dago. | | |
| C | Haur txikiak dauden geletako leihoek dagokien segurtasun sistemak eduki behar dituzte, haurrek ez ireki ahal izateko. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



## ARRISKUAK IKASTETXEAN

Jolas ordua heldu da, eta hainbat ikasle korrika doaz pasabidean zehar. Neska batek atea ireki du gelatik irteteko asmoz, eta danba! Momentu horretan korrikan zihoan haur batek kolpe ederra hartu du atearekin.

---

### Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Ikastetxeetako geletan ezin da aterik jarri. | | |
| B | Ikastetxe barruan ez dela korrika egiten bermatu behar da. | | |
| C | Ateak kanporantz irekitzen diren pasabideetan, segurtasun eremuak ezartzea komeni da, zoruan marra batzuk jarriz. | | |

### Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK IKASTETXEAN

**Gela honetako ikasle gehienak adi daude irakaslearen azalpenak entzuten. Beraietariko bat, aldiz, aspertuta dagoela dirudi. Ez dago behar bezala jesarrita, eta hankaz gora erortzeko arrisku nabarmena dauka.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| | Neurri zuzentzaile posibleak | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Geletako aulkiak zoruan erabat lotuta mantendu behar dira. | | |
| B | Haur txikien kasuan, bederen, jesartzeko postura egokiak mantentzen direla bermatu beharko luke irakasleak. | | |
| C | Postura egokiak mantentzearen abantailak jakinarazi behar zaizkie haurrei. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



# ARRISKUAK IKASTETXEAN

**Bazkaltzeko garaia heldu zaie haurrei. Bat-batean, haurtxo bat negarrez hasi da, ebakia egin baitu ezpainean. Edalontzia pitzatuta zegoen, eta ontziak banatzean, inor ez da konturatu.**

---

## Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Egoera onean ez dauden edalontziak kendu egin behar dira. | | |
| B | Ikastetxeetako jantokietan ezin dira beirazko edalontziak erabili. | | |
| C | Haur txikiak dauden jantokietan, zaintzaileak daudela bermatu behar da. | | |

## Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!

# EGUNEROKO EGOERAK

"Eguneroko egoerak" (etxean, kalean, mendian, ikastetxean eta hondartzan) jorratuko ditugu oraingoan.

Aztertu ondoko marrazkian islatzen den arrisku-egoera. Jarraian, hiru neurri zuzentzaile posible aurkezten dira eta zera egin behar duzu: zuzenak edo okerrak diren esan.

Ea zein trebea zaren!! Zorte on!!



## ARRISKUAK IKASTETXEAN

**Informatikako klasea dute, eta hor dabiltza guztiak pozik, bakoitza bere ordenagailuarekin. Instalazio elektrikoa egin zutenean, kableak ez ziren behar bezala gorde. Asko bistan eta zintzilik geldìtu ziren. Pasatzen ari den mutikoa ez da konturatu kableak zintzilika daudela. Kateatu, eta lurrera erori da.**

### Jarraian agertzen diren 3 neurri zuzentzaile posibleetatik aukeratu zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk okerrak

| Neurri zuzentzaile posibleak | | Zuzena | Okerra |
|---|---|---|---|
| A | Ordenagailuen instalazio elektrikoa egitean, kableak ez direla zintzilik uzten bermatu behar da. | | |
| B | Ordenagailuak eta beraientzako mahaiak era egokian bananduta egon behar dira, premiarik gabeko estropezuak ekiditeko. | | |
| C | Ikastetxeetako ordenagailu guztiak, derrigorrez, haririk gabekoak izan behar dira. | | |

### Ekidi daitezke antzeko arrisku-egoerak, ez duzu uzte?? Zabal dezagun prebentzio-kultura!!